

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Ezer baino lehen, ezinbestekoa da zer eskainiko dugun edo zer arazo konpontzeko gai garen jakitea.

Gure enpresak, txip-ak egingo ditu eta tamaina askotarikok izan daitezke, objektu guztientzat moldatu ahal izateko. Hau hainbat arazo konpontzeko gai izango da: Txip hau ezinbestekoa da, bidai asko egiten duen pertsona batentzat. Hauek, gauzak galtzeko ahalbide handiagoa dutelako eta zerbait galtzerakoan txip honen bidez non galdu duzun jakiteko ahalmena edukiko duzu.

Erosotasun handia eskiniko dugu gainean daramazun edozer gauza galtzean, txip-aren bidez oso azkar aurkitu dezakezulako. Horrek **azkartasuna** ere eskainiko du, dembora handia aurreztuko duzulako zure ondasunak berehala aurkituko dituzulako.



Alde kualitatiboari dagokionez, gure diseinua txiki samarra edo erraz disimulatzeko modukoa izango da, pegatina moduko bat izango da eta horrela bistan egotea ekidingo dugu **arriskuak jasan ditzaketen pertsonak babesteko**. Adibidez, haurrek beraiekin jolastu daitezkelako.



Arlo kuantitatiboari dagokionez, hasieran prezio merke batekin hasiko da saltzen gure produktua denen eskura egon dadin.. Gure enpresa ezagunagoa egiten denean eta bezero ohikoak ditugunean prezioa . Adibidez aldatu daiteke, pack-ak egiten gure bezeroak dirua aurrezteko, erosketa batzuetara iristean oferta batzuk egingo dizkiegu..